



ALDEZ AURREKO KONTSULTA, TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN FORU ARAUAREN AURREPROIEKTUAZ

Bat etorri maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak, xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenak, I. eranskinaren 9. artikuluan xedatutakoarekin, eta xedetzat hartuta herritarrek parte hartze handiagoa izan dezatela xedapen arauemaileak egiteko prozeduran, goiburuan adierazitako aurreproiektua egin aurretik kontsulta publiko bat bideratu da, zeinaren bidez honako alderdi hauen gaineko iritzia eskatuko baitzaie egingo den arauaren eraginpean izan daitezkeen herritarrei eta ordezkariak handieneko erakundeei:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Ordezko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak.

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, Arabako foru sektore publikoko erakundek jasotzen dituzten tasa eta prezio publikoen arau esparrua eguneratu behar duen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasuna duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, 2018ko otsailaren 8ra arte, aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.



<p>KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK</p>	<p>Azaroaren 20ko 64/1989 Foru Araua, tasa eta prezio publikoena, gaur egun gai hori arautzen duena, desegoki bihurtu da arrazoi hauek direla eta:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Ez du jasotzen Arabako foru sektore publikoko erakundeek (ez zegoen halako kontzepturik 1989an), diru sarrerarako figura gisa, tasa eta prezio publikoak baliatzeko aukera, Arabako Foru Aldundirako eta bere erakunde autonomoetarako baino ez baita aurreikusten.2. 1989. urteaz geroztik, eta tasen arloan bereziki, aldaketa asko egin dira foru arau horren artikuluetan, zerga premiazko araugintzako foru dekretu eta arauen bitartez, zeinen edukia ez baita beti behar bezala bateratu 64/4989 Foru Arauaren testuan. Hori dela eta, gaur egun, tasa eta prezio publikoen araudia sakabanatuta dago, nahasia da eta segurtasun juridikoko arriskua sortzen du, eta arrisku hori desagerrarazi behar da.3. 9/2017 Legeak, sektore publikoko kontratuenak, funtsezko gisa, salbuetsi egin dituen tasa eta prezio publikoen 8/1989 Legea (estatukoa) aplikatzen zergapekoak ez diren ondare prestazio publikoak (sektore pribatuarekin lehian emandako obrak edo zerbitzuak jasotzeagatik zergadunek ordaintzen dituzten tarifak), foru esparruan ere antzera arautu behar da tasa eta prezio publikoen foru araua aplikatzen salbuesteko kontu hori.
<p>HURA ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA</p>	<p>Ikusita foru esparruan tasa eta prezio publikoen araudi sakabanatu eta zaharkitu hori bateratzeko beharra zegoela, otsailaren 28ko 1/2017 Foru Arauak, gardentasun eta herritarren parte-hartzearenak, agindu zion Arabako Foru Aldundiari azaroaren 20ko 64/1989 Foru Arauaren, tasa eta prezio publikoenaren, testu bateratua egin bezala. 2017ko martxotik azarora bitartean testu hori landu zen, eta 2017ko abenduan, izapidetzean,</p>



	<p>itopuntuan geratu zen. Horren eta 9/2017 Legeak, sektore publikoko kontratuenak, arlo honetan egin dituen lege berrikuntzen ondorioz, tasa eta prezio publikoen foru araudia eguneratzeko araugintza tresna aldatu behar da, eta araugintzako foru dekretuaren ordeztu behar da.</p>
HELBURUAK	<p>1. Gaurkotzea tasa eta prezio publikoen araudia eta testu bakar batean jasotzea, zeinak bildu beharko baititu 1989. urteaz geroztik azaroaren 20ko 64/1989 Foru Arauan, tasa eta prezio publikoenean, eragin duten erakunde, zerga, finantza eta kontratu arloko araudiek sartutako aldaketak.</p> <p>2. Arabako foru sektore publikoko erakunde guztietara (kontzeptu berria, 1989an ez zegoena) zabaltzea diru sarrera publiko horiek jasotzeko aukera.</p> <p>3. Tasa eta prezio publikoen foru araudia aplikatuzetik salbustea zergapekoak ez diren ondare prestazio publikoak, 9/2017 Legeak, sektore publikoko kontratuenak, funtsezko gisa jaso baitu ez dela aplikatzekoa 8/1989 Legea, tasa eta prezio publikoena (estatukoa).</p>
ORDEZKO KONPONBIDEAK, ARAUGINTZAZKOAK ZEIN ARAUGINTZAZ BESTEKOAK	<p>Adierazitako helburuak betetzeko ez dago bestelako arau aukerarik, behin ikusita bideraezina zela azaroaren 20ko 64/1989 Foru Arauaren, Arabako tasa eta prezio publikoenean, testu bateratua onartzeko araugintzako foru dekretu bat egiteko aukera.</p>